

Aitzindaria estatuko elikagai banatzaileen artean

**EROSKIK PRODUKTU GEHIAGORI JARRI DIE PLANET
SCORE INGURUMEN ETIKETA, ARDURAZ EROSTEA
ERRAZAGOA IZAN DADIN**

- EROSKIren dendetan, elikaduraren arloko 29 produktuk dute produktuek osotara ingurumenean zer eragin duten adierazten duten etiketa
- Gainera, *Planet Score* zigilua ezartzen ere hasi da bere markako produktuen ontzietan, eta aitzindaria da horretan ere
- EROSKIk ehunka kontsumitzaileari egindako inkesta baten bidez onartu du etiketa horiek erabiltzea

Elorrión (Bizkaia), 2023ko azaroaren 10ean.- Duela urtebete, [EROSKI](#) ingurumen etiketa berria ezartzen hasi zen bere markako hainbat produktutan, eta Espainiako lehen banaketa enpresa izan zen hori egiten. Hil honetatik aurrera, EROSKIren dendetan, elikagaien arloko eta produktu freskoen saileko 29 produktuk izango dute *Planet Score* zigilua. Hala, EROSKI aurrerapausoak egiten ari da [kontsumo arduratsua](#) sustatzeko eta [kontsumitzaileari ematen dion informazioa gardena izan dadin hartu dituen konpromisoetan](#); izan ere, kontsumitzaileek erosketa jasangarriagoa egitea errazagoa izan dadin du helburu.

Etiketa horren bidez, elikagaiak osotara ingurumenean zer-nolako eragina duen adierazi nahi zaie kontsumitzaileei, informazio erabilgarria eman ahal izateko erosketak egiteko orduan erabaki kontzienteak hartu ditzaten. Horretarako, produktuaren bizi zikloa aztertzen da hainbat adierazle oinarri hartuta. Puntuazio global batekin aurkezten da emaitza (A-tik E-rainoko eskala batean, hainbat kolorez adierazita), eta hiru adierazle zerrendatzen ditu: pestiziden erabilera, bioaniztasunean duen eragina eta kliman duen eragina. Gainera, animalia-jatorriko osagaiak dituzten produktuetan, animalia horiek hezteko metodoei buruzko balorazio bat ere badu, animalien ongizatea oinarri hartuta ezarria. Hala, kontsumitzaileek erraz alderatu ditzakete kategoria bereko produktuak, eta beraz, beharrezko informazioa jakinda egin dezakete erosketa.

EROSKI

Komunikazio Korporatiboa

Tel.: 946 211 214

comunicacion@eroski.es

**EROSKI – PRENTSA BULEGOA
CONSEJEROS DEL NORTE**

Joana G. Landazabal
Eduarne Izquierdo

Tel.: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)

Egitasmo berria: ontzian zigilua sartzea

Ingurumen etiketa produktu gehiagotara zabaltzearekin bat, EROSKI ontzi batzuetan ere etiketa hori jartzen hasi da. EROSKIk ingurumen etiketari buruzko inkesta bat egin zien ehunka kontsumitzailei, eta inkesta horretan lortutako ekarpenei eman dien erantzuna da aurrerapen hori.

"Jasangarritasunarekin dugun konpromisoa irmoa eta etenezina da, eta gizarteak ere guk dugun interes bera du kontsumo arduratsuago baterako bidean aurrera egiteko. Kontsumitzaileek baiezko biribila eman diote elikagaiak ingurumenean duten eraginari buruzko informazio argiagoa eta osoagoa behar ote duten galdetuta, erosketak egiteko orduan erabaki kontzienteak hartu ahal izateko, eta gustatuko litzaieke produktuen ontziek etiketa mota hori izatea. Gainera, proposatu dizkiegun ingurumen etiketen ereduaren artean, Planet Score gustatu zaie gehien elikagaiak osotara ingurumenean zer eragin duen jakiteko", azaldu du EROSKiko Osasun eta Jasangarritasun arloko zuzendari Alejandro Martinez Berriochoak.

Ingurumen informazio dinamikoa kontsumitzaileentzat

EROSKIk urteak daramatza produktuek ingurumenean duten eragina aztertzen eta horren inguruko informazioa ematen. Aitzindaria izan zen bere markako produktuei buruzko ingurumen aipuak argitaratzen, eta hain zuzen, Espainiako Kontsumo Handiko Berrikuntzako Behatokiak sektoreko berrikuntzarik aipagarrienetakoaren saria eman zion 2020an aurrerapen horri. Institut Cerdà-k lantzen du hori urtero.

Gaur egun, EROSKIk beste lan ildo bat ere badu bere produktuen ingurumen eragina aztertu eta kontsumitzaileei informazio hori helaraztearekin lotuta: Ingurulabel berrikuntza proiektua hain zuzen ere. [Ihoberen](#) ETE Zirkularra deialdiak finantzatzen du, eta [Basque Food Cluster](#) erakundeak zuzentzen. Euskal Herriko elikagaien arloko enpresa txiki eta ertainek ingurumen etiketa sartu dezaten sustatzea du helburu deialdiak. EROSKI proiektu horren kolaboratzailea da, eta modua egiten du bere tokiko hornitzaileek parte hartu dezaten bere markako produktu batzuek zer ingurumen aztarna duten aztertzeko egitasmo horretan. Etorkizunean argitaratuko diren ingurumen informazioari buruzko arauak zenbait baldintza ezarriko dituzte *greenwashing* edo garbiketa berdea delakoari aurre egiteko, eta proiektu honek bide emango du baldintza horietara egokituz joateko. *Green Claims* Europar Batasuneko

EROSKI

Komunikazio Korporatiboa

Tel.: 946 211 214

comunicacion@eroski.es

EROSKI – PRENTSA BULEGOA

CONSEJEROS DEL NORTE

Joana G. Landazabal

Eduarne Izquierdo

Tel.: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)



Zuzendaritzak proposatutakoa da arau horien adibide bat (2025ean onartzea espero da).

Errespetua ingurumenari

EROSKIk konpromiso sendoa du ingurumena errespetatzeko, eta horretarako, hainbat egitasmo lantzen ditu bere jarduerak inguru hurbilean eragiten duen kaltea murriztu eta 2050erako karbono neutraltasuna lortzeko. Hauek dira egitasmo horietako batzuk: produktu jasangarriagoak merkaturatzea, ontzien eta bilgarrien ekodiseinua lantzea, baliabideak modu jasangarrian erabiltzea, ingurumen aztarna murriztea, hondakinak ekonomia zirkularraren ereduari jarraikiz kudeatzea eta bioaniztasuna zaintzea.

EROSKI

Komunikazio Korporatiboa

Tel.: 946 211 214

comunicacion@eroski.es

EROSKI – PRENTSA BULEGOA

CONSEJEROS DEL NORTE

Joana G. Landazabal

Eduarne Izquierdo

Tel.: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)